

AITZINA

Editora: Fermin Munariz. Koordinatzailea: Mariasun Monzón. Aholkularia: Iñaki Egaña. Diseñatzailea: Joan Luis Napal. Helbidea: Rincon de la Aduana, 18 behe. 31001 Iruña. Tfnoa. 948-21 99 99. Faxa: 948-212329. E-mail: aitzina@haika.net

NORANTZA

Luis FERNÁNDEZ
Aurki bilatzailearen arduraduna

«Netscape bezalako munstro teknologikoan euskara integratu dugu»

Aurki -<http://www.eibar.org/aurki->, Interneten den euskara hutsezko lehen bilatzailea, martxan dago. Eibar.ORG elkartearen zerbitzu gisa jarri da martxan gure hizkuntzan egina dagoen bilatzaile aitzindari hau, eta Luis Fernandez da Netscapen euskara integratu duen bilatzaile honen arduraduna.

hortxe dihardugu... Esan daiteke azala Aurki dela, eta tripak Dmoz bilatzaile dira.

Zein da euskaraz egina dagoen lehenengo bilatzaile martxan jartzearen garrantzia?

Euskara hutsezko lehen bilatzaile da, baina elebidunak egin dira lehenago, aipagarriena Kai-xo bilatzailea. Nolanahi ere, uste dugu Aurki jausi handia ematen duela aurrerantz. Eus-

karaz edozer bilatu eta aurkitzeko aukerak asko erraztu dira Interneten Aurkiri esker. Gainera, inbertsio ekonomikorik gabe egin daitekeela frogatu dugu, inoren subentzio edo propinen mendean egin gabe, eta Netscape bezalako munstro teknologiko batean euskara ere integratu dugu, lasai asko, inori mesederik eskatu gabe.

Aurki bukatua dago eta egunero joaten da berak ematen duen informazio multzoa handitzen?

Ez dago bukatua, ez horixe! Haziz doan gauza da, eta horretan edozeinek lagun dezake, ez bakarrik gehikuntzak proposatzen, baita ere editore bihurtu eta bilatzailearen tripetan zuzenean sartzen eta parte hartzen. Azken bi asteotan, lau editore euskaldun apantatu dira. Gehiago etortzea espero dugu.

Etorkizunari begira, eta informatika eta euskararekin lotuta, baduzue asmo berririk?

Eibar.ORG elkarte osatu dugu koardila batekoek Eibarren: Internet eta teknologia berrien erabiltzaileen elkarte gara. Elkarre horren zerbitzu bat da Aurki, euskaldun guztiei eskainia, baina ez da egin dugun gauza bakarra... Lan batzuk martxan ditugu, eta asmoak buruan, bueltaka. Urtean 25.000 pezetako aurrekontu bat edukita, gauza asko egin daitekeela uste dugu, zaila badirudi ere.

BEGOÑA SIMON

Eibar.ORG elkarte izan da Interneteko euskara hutsezko lehen bilatzailea asmatu duena. Nondik atera zen asmo hori?

Netscape eta AOL enpresen jabetza den Dmoz bilatzailea (<http://dmoz.org>) da honen oinarria, azpizgitura tekniko guztia haiek jarria daukate eta ingelesezko bilatzaile oso ona egiteko lanean dihardute. Hala ere, beste hizkuntza batzuetako atalak ere sortu dituzte, eta atal horien hazkundera jendearen esku utzi dute: editore boluntarioak dira direktorearen atal bakoitzaren gestioaz arduratzen direnak. Halaxe sartu nintzen ni, zirrikitu batek. Gero, euskarazko atala sortzeko eskaera egin nuen, kasu egin zidaten, eta, harrezkero, haren gestioa daramat. Ondoren, Eibar.ORG elkartearen gunean, bilatzaile horrentzako fatxada edo marka bat sortu dugu, Aurki, eta



ZIRTOKA



Txillardegi

Ez-entzunak

Buesa dixit: «Que los diputados de HB hagan la huelga de hambre puede ser útil para su forma física. Pero no tiene dimensión política alguna».

Belloch dixit: «Los presos nunca han hecho la huelga de hambre en las cárceles. Esas pretendidas huelgas son operaciones de propaganda pura y dura».

Xaxaketa eta irain nabarmenean arbiak. Giro politikoak zornatu nahi dute, nola edo hala. Eta Ajuria-Enea-ra itzuli.

Lehenago ere mintzatuak izan dira bi liderrok. Buesaak beste esaldi bikain hura bota zuen halako batez: «Los del PSOE vamos a dar un giro a la política española no sólo de 180 grados, sino incluso de hasta 360». Eta Hezkuntza Buru gelditu zen harro-harrotan.

Eta Belochek, oromenak huts egiten ez badit, «Jueces Democratas» delakoan ibili zen Super Ministro zegoen garaian.

Horra hor benetako frentismoa. Española.

Arjeliako gerlako urteetan ere gauza bera gertatu zen. «La France Unit et Indivisible de Dunkerque à Tammanrasset» zioten ahobatez.

Alegia Mantxa-tik Sahararaino. Puntu honetan frantses guztiek egin zuten bat: eskuindar zein ezkerrearek.

Ulergarria da buruzagi politikoek beren erakuntzak publikoki aitortu nahi ez izatea.

Ez da normala, edozein intelektualak, eta euskal ezkerreker bereziki, behin eta berriz falsu agerri diren profetak eta teoriak ez argiro zapuztea eta gaitztea.

Gauden beha.

AITZINDARIAK

ANNA BELASKO
1 5 1 6

ESPAÑIARIKO ERREGEORDARI DEN CISNEROS KARDINALAK NA FARRONKO GAZTELU ETA HARRESI GUTIZ GEHIENAK ERRAUTS ERAZI DITU, ETA ERRODETATIK.

«Esta manera el reino puede estar mas suajada y mas sujeta y ninguno tendrá arrevimiento ni osadia para ser revelar»



VILLALBA KOLONELAK SUPERKI BETE DU AGINDUA, ELIZDORREAK ERE MOZTU DITVELA...



«Navarra, esta tan baxa de fantasia despues que vuestra señoria mando deprocar los muros, que no ay onbre que alce la cabeza»

ALVAR GOMEZ IZENENKO LEKUKO BATEK:

«llevaron muy a mal esto los navarros para quien fue un espectáculo muy desconsolador y miserable ver con sus propios ojos como se arrasaban los muros de los castillos hasta los cimientos, y cual eran las fortalezas arrancadas de sus»

BATTO SALBATU ZEN ORDEA FALTESKO MARKISAK SUHARKI DEFENDATURIK: MARZILLAKO GAZTELUAK ZUTIKEN BAITIRAU EGUNDAINO.



Andre nobia zio horra eze ezazu ofortia!!

Bai hoixe!! ez dut betze beharagokor!!!

